

30 urte beranduago, kalea geureganatzen

1895.ean Oscar Wilde, Lord Alfred Douglas –ekin izan zuen harreman homosexualagatik epaitua kondenatua eta deusestatua izan zenean, geure duintasuna defendatzeko bandera goratu egin zen.

1917.ean, Carmen de Burgos kazetari eta idazleak, jadanik bere garaian ikusten zuen aniztasun sexuala islatzen zuen bere eleberrietan, bereziki lesbianak aipatuz, beraiek izan bait ziren arau sexual guztiak hautsi zituzten kolektiboa. Eta garai berdinean eta bere pertsonai baten bitartez, Federico Garcia Lorca, Askatasunaren banderan bere maitasunik handiena josi/brodatu zuela zionean, gaur bezalako egun batean iradoki nahi zigula zirudien.

Holokausto naziaren garaian, beraien sexualitateagatik erahilak izan ziren millaka emakume eta gizonen omenez, triangelu larrosa zein beltzen banderak goratu ziren.

1969an, marikak, traveloak, transexualak, txaperoak, putak, eta bollerak, Stonewall Inn- etik atera eta harrotasunez kaleak eskuratzera atera ziren. Gure askatasun sexualagatik borrokatu zuten eta Ortzadarraren bandera oinordetzan utzi ziguten.

Lambda izkia, ortzadarra, gameto bikoitza, aizkora bikoitza edota triangelu larrosa eta beltzak, guzti hoiek, dira gure banderak.

1977ean mugimendu gay eta lesbikoek, gure eskubideak defendatzeko lehen manifestaldia deitu zuten Bilboko kaleetan zehar eta era zakarrean disolbatua izan zen. Zalantzarik gabe, Historia, Askatasuna lortzeko bizi indarraren ahalegina da.

100, 50, 30 urte beranduago, oraindik ere beraien borrokak geureak dira; geure espazio publikoak, askatasun eta errespetuzko espazio ereduak izatea nahi dugun guztionak, hots, gizartearen ezinbesteko aniztasuna agerian uzten duena. Inork ez ditzala geure nahiak eta desioak oztopatu, eta are gutxiago ere estatuak bere legeekin. Ez gaitzatela esan non, nola, noiz eta norekin egon behar dugun.

100, 50, 30 urte beranduago, oraindik ere generoak, etniak, gaitasun funtzionalek, gaixotasunak eta ondasunak gure garapen sexualean ezberdintasunak eragiten ditu. Ez gaitezen engainatu, oraindik ere emakume, transexual, etorkin, beltza, atso, txiro, ihesa, eta ezindua hitzek, homosexual hitzari eransteak, isiltasun, diskriminazio eta estigmatizazio gehigarria dakar. Eta Askatasuna lortzea azken baldintza hauek kontuan izanik, esfortsu handiagoa suposatzen du.

Gaur, berriro ere, askatasun espazio ezberdinak aldarrikatu beharra daukagu, eta arrazoi anitz ditugu:

Gure sexualitate anitzak, askatasun espazio gisa aldarrikatzen ditugu. Generazio arteko harremanak gero eta zigortuagoak dira, bai poliziaren eraso eta atxiloketen bidez edota komunikabideek sortzen duten nahastea dela eta, gure sexualitatea gehiegikeria, erailketa edota sexu delituekin lotzen bait dute.

La 20 urte pasa dira OMEk (Osasunaren Munduko Erakundeak) homosexualitatea gaixotasun sikiatrikoen sailkapenetik atera zuela eta oraindik ere larritasunez ikusten dugu homosexualitatea eta lesbianismoa birpatologiatzeko zientzilariak ematen dituzten arrazoi biologizistak. Pasadan astean, suediar zientzilari batzuen azterketaren berri ezagutu genuen, eta bertan lesbianen eta gay-en garuna nolakoa den zehazten ahalegiten ziren, baina gure sexualitatea bizitzeko zein ekarpen dakarzkigute ?

Geure gorputza askatasun espazio gisa aldarrikatzen dugu. Transexualitatea ez da gaixotasun mentala, bere garaian homosexualitatea eta lesbianismoa izan ez ziren bezala, eta gaixotasun mentalen sailkapenetik (DSM eta CIE) kentzea exijitzen dugu. Garena eta ez garenaren erabakia ez dagokio ez medikuntzari ez psikologiari ezta politikariei, baizik eta pertsona/protagonistei. Eta hauek jasan behar izaten dituzte, existitu behar ez luketen diagnostikoen bidegabekeriak.

Gaur, geure eskubideon defentsan atzerapausorik eman gabe, kalea, gure gorputzak eta gure desioak erabili ditzagun.

Hitz hauek geureak egiten ditugu: *Ongi etorria kaos-a, askatasunaren zantzua bait da.*

Ekainak 28 ko Koordinadora:
Aldarte, Bizigay, Euskalhartza, Egham, Hegoak, mass medeak,
eta Queerekintza